# ORDENAGAILUAK– INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

## Prozedura ireki bidez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

| Oinarrizko maila | Maila aurreratua |
|---|---|
| **KONTRATUAREN XEDEA:** | **KONTRATUAREN XEDEA:** |
| Kontratuaren xedea ekipo informatikoak eskuratzea da (mahai gaineko ordenagailuak, monitoreak eta/edo ordenagailu eramangarriak).<br>Lan-osasuna babesteko eta ingurumenaren gaineko inpaktua murrizteko, ekipoek ingurumen-kalitateko gutxieneko irizpide batzuk bermatu beharko dituzte. Horrez gain, hornikuntza-zerbitzua ingurumena errespetatuz eman beharko da. | Kontratuaren xedea ekipo informatikoak eskuratzea da (mahai gaineko ordenagailuak, monitoreak eta/edo ordenagailu eramangarriak).<br>Lan-osasuna babesteko eta ingurumenaren gaineko inpaktua murrizteko, ekipoek ingurumen-kalitateko gutxieneko irizpide batzuk bermatu beharko dituzte. Horrez gain, hornikuntza-zerbitzua ingurumena errespetatuz eman beharko da. |
| **ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):** | **ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):** |
| ***Energia-kontsumoa***<br>1. Eskainitako ekipo guztiek (monitoreak, mahai gaineko ordenagailuak eta ordenagailu eramangarriak), gutxienez, Energy Star estandarrean (Computers, version 6.1[1] / Monitors, version 7.1[2] edo gerokoak) edo horren baliokidean | ***Energia-kontsumoa***<br>1. Eskainitako ekipo guztiek (monitoreak, mahai gaineko ordenagailuak eta ordenagailu eramangarriak), gutxienez, Energy Star estandarrean (Computers, version 6.1[3] / Monitors, version 7.1[4] edo gerokoak) edo horren baliokidean |

[1] https://www.energystar.gov/products/office_equipment/computers/key_product_criteria
[2] https://www.energystar.gov/products/office_equipment/displays

| | |
|---|---|
| eraginkortasun energetikorako definituta dauden betekizunak.<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 2.a, 3.a, 4.a, 5.a, 6.a edo 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | eraginkortasun energetikorako definituta dauden betekizunak.<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 2.a, 3.a, 4.a, 5.a, 6.a edo 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| ***Zarata mailak***<br><br>2. Zarata mailek [LWad] ezingo dituzte honako maila hauek gainditu (EN ISO 7779:2011en arabera kalkulatuak eta ISO 9296:1988 edo baliokideen arabera adieraziak):<br><br>• Mahai gaineko ordenagailuetan:<br>– Emisioak, ekipoa atseden moduan egonda ≤ 39 dB(A)<br>– Emisioak, modu aktiboan ≤ 44 dB(A)<br><br>• Ordenagailu eramangarrietan:<br>– Emisioak, ekipoa atseden moduan egonda ≤ 35 dB(A)<br>– Emisioak, modu aktiboan ≤ 40 dB(A)<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2.a, 3.a, 4.a, 5.a, 6.a edo 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | ***Zarata mailak***<br><br>2. Zarata mailek [LWad] ezingo dituzte honako maila hauek gainditu (EN ISO 7779:2011en arabera kalkulatuak eta ISO 9296:1988 edo baliokideen arabera adieraziak):<br><br>• Mahai gaineko ordenagailuetan:<br>– Emisioak, ekipoa atseden moduan egonda ≤ 39 dB(A)<br>– Emisioak, modu aktiboan ≤ 44 dB(A)<br><br>• Ordenagailu eramangarrietan:<br>– Emisioak, ekipoa atseden moduan egonda ≤ 35 dB(A)<br>– Emisioak, modu aktiboan ≤ 40 dB(A)<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2.a, 3.a, 4.a, 5.a, 6.a edo 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |

[3] https://www.energystar.gov/products/office_equipment/computers/key_product_criteria
[4] https://www.energystar.gov/products/office_equipment/displays

| | |
|---|---|
| | **Pantailei eta monitoreak (eramangarriak eta ordenagailu integratuak barne ) ergonomiako eta isuri elektromagnetikoen arloko eskakizunak**<br>3. Monitoreek TCO etiketa ekologikoan (Displays version 7.0 / Computers and Laptops, version 5.0 / All-in-one Computers, version 3.0[5]) edo baliokideetan zehaztutako ergonomiako eta isuri elektromagnetikoen arloko eskakizunak bete behar dituzte.<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 5.a edo 6.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| ***Bermea***<br>3. Produktuak gutxienez hiru urteko bermea izan behar du.<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako, berme hauetako bat aurkeztu beharko da: 4, 5 edo 8 (ikus Egiaztapen dokumentazioa). Berme hau kontratua sinatzerakoan gauzatu beharko da.* | ***Bermea***<br>4. Produktuak gutxienez hiru urteko bermea izan behar du.<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean sartutako produktu bakoitzerako, berme hauetako bat aurkeztu beharko da: 4, 5 edo 8 (ikus Egiaztapen dokumentazioa). Berme hau kontratua sinatzerakoan gauzatu beharko da.*<br>5. Eskuratutako ekipoetarako ordezko piezak beren ekoizpena amaitu eta gutxienez hiru urtez eskuragarri izatea bermatu behar da. Baldintza hori urratuz gero, lizitatzaileak inolako arazorik gabe funtzionatzen duen antzeko ezaugarrietako ekipo bat entregatu beharko du.<br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 2.a, 4.a, 5.a, 6.a edo 8.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |

[5] http://tcocertified.com/files/2015/11/TCO-Certified-Displays-7.0.pdf
http://tcocertified.com/files/2015/12/TCO-Certified-Desktops-5.0.pdf
http://tcocertified.com/files/2015/11/TCO-Certified-Notebooks-5.0.pdf
http://tcocertified.com/files/2015/12/TCO-Certified_AIO-PC-3.0.pdf

| GAUZATZE-IRIZPIDEAK: | GAUZATZE-IRIZPIDEAK: |
|---|---|
| 4. Esleipendunak gaika bereiziko ditu ekipoak instalatzerakoan sortutako enbalaje-hondakinak eta kontratatzaileak adierazten dizkion edukiontzietara eramango ditu, haien birziklapena egokia izan dadin.<br><br>Gainera, kontratatzaileak hala adierazten dionean, dohainik jasoko ditu zaharkitutako ekipoak eta haien osagaiak. | 6. Esleipendunak gaika bereiziko ditu ekipoak instalatzerakoan sortutako enbalaje-hondakinak eta kontratatzaileak adierazten dizkion edukiontzietara eramango ditu, haien birziklapena egokia izan dadin.<br><br>Gainera, kontratatzaileak hala adierazten dionean, dohainik jasoko ditu zaharkitutako ekipoak eta haien osagaiak. |
| **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** | **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** |
| | **Energia-kontsumo txikiagoak**<br><br>7. Baloratu egingo da ekipoen urteko kontsumo estandarra (ETEC) txikiagoa izatea.<br><br>***Egiaztapena:*** *Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |

| EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*): | | | |
|---|---|---|---|
| *1. Aingeru Urdina etiketa* | | *5. TCO ekoetiketa* | |
| *2. Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa* | | *6. The EcoDeclaration-TED* | |
| *3. Beltxarga Zuria etiketa* | | *7. Fitxa teknikoa* | |
| *4. Energy Star ziurtagiria* | | *8. Deklarazioa* | |
| *(*) Horiek dira baloratuko den espezifikazio edo irizpide bakoitzaren betetzea modu argienean bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak edota informazioa jaso dezakeen dokumentazioa, baina egiaztapen-dokumentazio baliokidea ere onartuko da, finkatutako irizpideak betetzen direla argiro frogatzen badute.* | | | |

**OHARRAK:**

*Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, interesgarria izan daiteke osagai plastikoekin, konpongarritasunarekin, enbalajeekin edo beste elementu batzuekin zerikusia dutenak ere barne sartzea.*

*Informazio hau sakontzeko,* ***Ihoberen webgunearen Erosketa Publiko Berdearen arloko irizpideen atala*** *http://www.ihobe.eus/criterios-ambientales kontsulta daiteke edo Ihoberekin zuzenean kontaktatu:*

- *Tel.: 94 423 07 43*
- *Helbide elektronikoa: compra.publica@ihobe.eus*